



ALHAO

ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN
ALDIZKARI OFIZIALA

BOTHA

BOLETÍN OFICIAL
DEL TERRITORIO HISTÓRICO
DE ÁLAVA

2013ko urriaren 4a, ostirala

ZENBAKIA 114 NÚMERO

Viernes, 4 de octubre de 2013

GEHIGARRIA - SEPARATA

HITZARMEN KOLEKTIBOA - CONVENIO COLECTIVO

ARABAKO OKINDEGIEN INDUSTRIA ETA MERKATARITZARAKO SEKTOREARENTZAKO HITZARMEN KOLEKTIBOA
CONVENIO COLECTIVO PARA EL SECTOR DE LAS INDUSTRIAS Y COMERCIO DE PANADERÍAS DE ÁLAVA

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

*Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako
Arabako Lurralde Ordezkaritza*

4832

Arabako Okindegien Industria eta Merkataritzarako sektorearentzako hitzarmen kolektiboa.

EBAZPENA, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da 2013-2014 Arabako Okindegien Industria eta Merkataritzarako sektorearentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01000885011981.

AURREKARIAK

2013ko uztailaren 17an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziatio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarri sozialek, 2013ko uztailaren 11n sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995eko martxoaren 29ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua -Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2013ko apirilaren 24ko EHAA)- dionarekin bat etorri eta urtarilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) - hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena.- Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

*Delegación Territorial de Trabajo, Empleo
y Políticas Sociales de Álava*

4832

Convenio colectivo para el Sector de las Industrias y Comercio de Panaderías de Álava.

RESOLUCIÓN del delegado territorial de Trabajo, Empleo y Políticas Sociales de Álava del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo 2013-2014 para el Sector de las Industrias y Comercio de Panaderías de Álava. Código convenio núm. 01000885011981.

ANTECEDENTES

El día 17 de julio de 2013 se ha presentado en esta Delegación el texto del convenio colectivo citado, suscrito por la representación empresarial y la representación social en la mesa negociadora, el día 11 de julio de 2013.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29 de marzo de 1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 19.1.g del Decreto 191/2013, de 9 de abril (BOPV de 24 de abril de 2013) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (BOPV de 15 de febrero de 2011) y con el Real Decreto 713/2010 de 28 de mayo (BOE de 12 de junio de 2010) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.- El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.- ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 12a.- Arabako lurralde ordezkaria, ÁLVARO IRADIER ROSA.

**Arabako Okindegien Industria eta Merkataritzarako
2013 – 2014 Hitzarmen Kolektiboa**

1. artikulua.- Aplikazio-eremua
2. artikulua.- Langile-eremua
3. artikulua.- Denbora-eremua
4. artikulua.- Bakartasuna
5. artikulua.- Xurgapena eta konpentsazioa
6. artikulua.- Ordainsariak
7. artikulua.- Oinarrizko soldata
8. artikulua.- Hitzarmen-plusa
9. artikulua.- Lantzeko pizgarria
10. artikulua.- Antzinasuna
11. artikulua.- Soldataz kanpoko plusa
12. artikulua.- Aparteko ordainsariak
13. artikulua.- Aparteko orduak
14. artikulua.- Garbitzaileak
15. artikulua.- Gauzazko ordainsariak
16. artikulua.- Gidarien partaidetza berezia
17. artikulua.- Lanaldia
18. artikulua.- Igande eta jaiegunetako lanak
19. artikulua.- Oporraldia
20. artikulua.- Urteko ordainsari gordina
21. artikulua.- Baimenak eta lizentziak
22. artikulua.- Probaldia
23. artikulua.- Hitzarmeneko Batzorde Paritarioa
24. artikulua.- Batzorde Paritarioaren eginkizunak
25. artikulua.- Hitzarmena aldi batez ez aplikatzeko prozedura
26. artikulua.- Lan Osasuna
27. artikulua.- Istripuek eta lanbide-gaixotasunek eragindako bajak
28. artikulua.- Erretiroa
29. artikulua.- Lanbide-kategoriak
30. artikulua.- Eskubide sindikalak
31. artikulua.- Jaiotzak
32. artikulua.- Ezkontza
33. artikulua.- Eszedentziak
34. artikulua.- Gidabaimena
35. artikulua.- Aldi baterako kontratuak
36. artikulua.- Prestakuntza-kontratuak
37. artikulua.- Laneko gatazkek ebazteko borondatezko prozedurei buruzko lanbide arteko akordioak
38. artikulua.- Aseguru poliza
 1. klausula osagarria Atzeraeragina
 2. klausula osagarria Igandeko lana
 3. klausula osagarria Hobekuntza ekonomikoa eta berrikuspena
 4. klausula osagarria Baldintza onuragarriagoak
 5. klausula osagarria Arau osagarriak

1. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Arabako Okindegien Industria eta Merkataritzarako hitzarmen hau Arabako probintzian kokatuta dauden eta adierazitako lan-jardueran aritzen diren enpresa eta zentro guztiei aplikatuko zaie, forma eta izena, osaera, aurkezpena eta fabrikazio eta salmentarako prozedura edozein izanik ere.

2. artikulua.- Langile-eremua.

1. artikuluan aipatutako enpresetan lan egiten duten langileak eta ogiaren salmentan eta banaketan diharduten guztiak (salmenta partikularrean edo banaketan) hartuko ditu eraginpean hitzarmen kolektibo honek.

3. artikulua.- Denbora-eremua.

Hitzarmen hau 2013ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, Lan Agintaritzaren erregistroan sartzen den eguna zein den kontuan hartu gabe, eta 2014ko abenduaren 31ra arte jarraituko du indarrean.

RESUELVO

Primero.- Ordenar su registro y depósito en la Oficina Territorial de Álava del Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos de Trabajo del País Vasco, con notificación a las partes.

Segundo.- Disponer su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 12 de septiembre de 2013.- El delegado territorial de Álava, ÁLVARO IRADIER ROSA.

**Convenio colectivo 2013 – 2014 para las Industrias
y Comercio de Panaderías de Álava**

- Artículo 1.- Ámbito de aplicación
- Artículo 2.- Ámbito personal
- Artículo 3.- Ámbito de aplicación temporal
- Artículo 4.- Unicidad
- Artículo 5.- Absorción y compensación
- Artículo 6.- Retribuciones
- Artículo 7.- Salario base
- Artículo 8.- Plus de convenio
- Artículo 9.- Incentivo de elaboración
- Artículo 10.- Antigüedad
- Artículo 11.- Plus extrasalarial
- Artículo 12.- Pagas extraordinarias
- Artículo 13.- Horas extraordinarias
- Artículo 14.- Personal de limpieza
- Artículo 15.- Retribución en especie
- Artículo 16.- Participación especial de chóferes
- Artículo 17.- Jornada laboral
- Artículo 18.- Trabajos en domingos y festivos
- Artículo 19.- Vacaciones
- Artículo 20.- Remuneración bruta anual
- Artículo 21.- Permisos y licencias
- Artículo 22.- Periodo de prueba
- Artículo 23.- Comisión paritaria del convenio
- Artículo 24.- Funciones de la Comisión Paritaria
- Artículo 25.- Procedimiento de inaplicación temporal del convenio
- Artículo 26.- Salud Laboral
- Artículo 27.- Bajas por accidente y enfermedad profesional
- Artículo 28.- Jubilación
- Artículo 29.- Categorías profesionales
- Artículo 30.- Derechos sindicales
- Artículo 31.- Natalidad
- Artículo 32.- Matrimonio
- Artículo 33.- Excedencias
- Artículo 34.- Carnet de conducir
- Artículo 35.- Contratos temporales
- Artículo 36.- Contratos formativos.
- Artículo 37.- Acuerdo Interprofesional sobre procedimientos voluntarios para la solución de conflictos laborales
- Artículo 38.- Póliza de seguros
 - Cláusula adicional 1ª. Retroactividad
 - Cláusula adicional 2ª. Trabajo en domingo
 - Cláusula adicional 3ª. Mejora económica y revisión
 - Cláusula adicional 4ª. Condiciones más beneficiosas
 - Cláusula adicional 5ª. Normas supletorias

Artículo 1.- Ámbito de aplicación.

El presente convenio para las Industrias y Comercio de Panaderías de Álava, será de aplicación a todas las empresas y centros ubicados en la provincia de Álava dedicados a dicha actividad laboral, cualquiera que sea la forma y denominación que tengan, su composición, presentación y procedimiento de fabricación y venta.

Artículo 2.- Ámbito personal.

Estarán afectados por este convenio Colectivo, los/las trabajadores/as que presten sus servicios en las empresas citadas en el artículo 1º y todo el personal que se dedique a la venta y reparto de pan, bien sea en despacho particular o reparto.

Artículo 3.- Ámbito de aplicación temporal.

El presente convenio entrará en vigor a partir del día 1 de enero de 2013, cualquiera que sea la fecha de su registro por la Autoridad Laboral, y extenderá su vigencia hasta el día 31 de diciembre de 2014.

Aurrekoa gorabehera, hitzarmen honen soldata-araubidea 2013ko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Indarraldia amaitzen denean, 2014ko abenduaren 31n, hitzarmenak aurreraeragina izango du beste 15 hilabetez, 2016ko martxoaren 31ra arte, Langileen Estatutuak 86.3 artikuluan dioena betez. Egun hori iritsi eta akordiorik lortu ez bada, hitzarmena bertan behera geratuko da, Langileen Estatutuan xedatutako eran.

Hitzarmen berriaren negoziazioak 2014ko urrian hasi behar dira, eta hil horretan bertan osatuko da Batzorde Negoziatzailea.

4. artikulua.- Bakartasuna.

Hitzarmen hau osotasun organiko bat da, eta bi alderdiak elkarri lotuta geratzen dira hura oso-osorik betetzeko. Ondorioz, hitzarmena deuseza izango da, eta indarririk gabe geratuko da, baldin eta jurisdikzio eskudunak hitzarmeneko akordiorik baliogabetzen edo indargabetzen badu. Horrelakorik gertatuz gero, hitzarmen hau sinatu duten alderdiak biltzeko konpromisoa hartu dute, horri buruzko ebazpena irmoa izan eta hurrengo 10 egunetan, sortutako arazoari konponbidea emateko. Ebazpen hori irmoa izan eta hurrengo 45 egunetan akordiorik lortzen ez badute, hitzarmen osoa negoziatzeko bileren egutegia finkatzeko konpromisoa hartu dute alderdiak.

5. artikulua.- Xurgapena eta konpentsatzea.

Legezko xedapenen edo beste edozein motatakoen bidez kontzeptu ekonomikoetan edo beste edozeinetan gertatzen diren igoerek hemen itundutakoak gaintzen dituztenean soilik eragingo diote hitzarmen honi. Bestela, hitzarmen honetan xurgatu eta konpentsatuko dira.

6. artikulua.- Ordainsariak.

Hitzarmen honetan itundutako ordainsariak osatzen dituzten kontzeptuak honako hauek dira: oinarrizko soldata, hitzarmen-plusa, aparteko ordainsariak, lantzeko pizgarriak, soldataz kanpoko plusa, antzinatasuna eta aparteko orduak.

7. artikulua.- Oinarrizko soldata.

2013ko uztailaren 1etik aurrera, oinarrizko soldata eranskinetako tauletan kategoria bakoitzerako zehazten dena izango da. Egutegiko egun guztietan sortuko da, salbu eta opor-egunetan.

8. artikulua.- Hitzarmen-plusa.

Enpresan altan emandako egutegiko egun bakoitzeko sortuko da, baldin eta produktibitate normal eta bidezkoa badago; zenbatekoa eranskinetako tauletan maila bakoitzerako zehaztutakoa izango da. Plus honek "Mozkinetako Partaidetza" izeneko plusa ordeztuko du 2013ko uztailaren 1etik aurrera.

9. artikulua.- Lantzeko pizgarria.

Ogia lantzen duten langileentzat soilik ezarriko da, pizgarri gisa, erantsitako soldata-tauletan agertzen den kopurua. Pizgarria benetan egindako hilabete bakoitzeko sortuko da; ez, ordea, oporraldian.

10. artikulua.- Antzinatasuna.

Okindegien 2013ko hitzarmen honetan ezarritako antzinatasun-igoerak eranskinetako soldata-tauletan zehaztutakoak izango dira.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan barne hartutako langileek, antzinatasun-kontzeptu gisa, aldizkako igoera bat izango dute enpresan lan egindako denboraren arabera, honako taula honetan ezarritakoari jarraiki:

- Enpresa berean 4 urte eman ondoren: ehuneko 5.
- Enpresa berean 8 urte eman ondoren: ehuneko 10.
- Enpresa berean 12 urte eman ondoren: ehuneko 15.
- Enpresa berean 17 urte eman ondoren: ehuneko 20.

11. artikulua.- Soldataz kanpoko plusa.

Hitzarmen honetan itundutako soldataz gainera, langileari betetzen duen lan-jarduerak eragindako gastuak ordainduko zaizkio, eta kontzeptuak honako hauek dira:

No obstante lo anterior, el régimen salarial de este convenio tendrá vigencia desde el día 1 de julio de 2013 hasta el 31 de diciembre de 2013.

Finalizada su vigencia el 31 de diciembre de 2014, de conformidad con que se establece en el artículo 86.3 del Estatuto de los Trabajadores, el convenio permanecerá ultra activo por 15 meses, hasta el 31 de marzo de 2016, fecha en la que de no haberse alcanzado un acuerdo, decaerá en los términos previstos en el Estatuto de los Trabajadores.

La negociación del nuevo convenio deberá comenzar en octubre de 2014, constituyéndose en dicho mes la Comisión Negociadora.

Artículo 4.- Unicidad.

El presente convenio constituye un todo orgánico, y ambas partes quedan mutuamente vinculadas al cumplimiento de su totalidad. En consecuencia, el presente convenio será nulo y quedará sin efecto en el supuesto de que la jurisdicción competente anulase o invalidase alguno de los pactos que en él se contienen. Si se diese esta circunstancia, las partes signatarias de este convenio se comprometen a reunirse dentro de los 10 días siguientes a la firmeza de la resolución correspondiente, al objeto de resolver el problema planteado. Si en el plazo de 45 días hábiles a partir de la fecha de la firmeza de la resolución en cuestión las partes signatarias no alcanzasen un acuerdo, se comprometen a fijar el calendario de reuniones para la negociación del convenio en su totalidad.

Artículo 5.- Absorción y compensación.

Los aumentos que pudieran producirse en los conceptos económicos o de cualquier tipo, por disposición legal o cualquier otra clase, sólo afectarán a este convenio cuando superen los aquí pactados, ya que, en caso contrario, serán absorbidos y compensados en este convenio.

Artículo 6.- Retribuciones.

Las retribuciones salariales pactadas en este convenio estarán compuestas por los siguientes conceptos: salario base, plus de convenio, pagas extraordinarias, incentivos de elaboración, plus extrasalarial, antigüedad y horas extraordinarias.

Artículo 7.- Salario base.

El salario base a partir de 1 de julio de 2013 es el que se especifica para cada una de las categorías en las tablas anexas. Se devengará durante todos los días naturales, con la excepción del período de duración de las vacaciones.

Artículo 8.- Plus de convenio.

Se devengará por día natural de alta en la empresa, con un nivel de productividad normal y correcta, y en la cuantía que para cada nivel figura en las tablas anexas. Dicho Plus sustituye a partir de 1 de julio de 2013 al plus denominado "Participación en beneficios"

Artículo 9.- Incentivo de elaboración.

Únicamente el personal dedicado a la elaboración de pan percibirá como incentivo las retribuciones que figuran en las tablas salariales anexas. Dicho incentivo se devengará por mes efectivo de trabajo, no devengándose en los períodos vacacionales.

Artículo 10.- Antigüedad.

Los aumentos de antigüedad establecidos en el presente convenio de Panaderías para 2013, se abonarán según la tabla salarial anexa.

Los/as trabajadores/as comprendidos en el ámbito de aplicación de este convenio, disfrutarán como concepto de antigüedad de un aumento periódico por el tiempo de servicios prestados a la misma empresa, según se establece en la tabla siguiente:

- A los 4 años de servicio en una misma empresa el 5 por ciento.
- A los 8 años de servicio en una misma empresa el 10 por ciento.
- A los 12 años de servicio en una misma empresa el 15 por ciento.
- A los 17 años de servicio en una misma empresa el 20 por ciento.

Artículo 11.- Plus extrasalarial.

Con independencia del salario pactado en este convenio, el trabajador/a será indemnizado de los gastos que ha de realizar como consecuencia de su actividad laboral por los siguientes conceptos:

- Garraio-gastuak.
- Urruntasun-plusa.

Adierazitako kontzeptuek eragindako gastuak ordaintzeko honako hau ezarri da: eranskinetako tauletan ezarritako soldataz kanpoko plusa edo osagarria. Plusa lanaldi arruntean benetan lan egindako egun bakoitzeko sortuko da; izan ere, haren funtsa beti da langileak bere ohiko jardunean sorrarazten dituen gastuak konpentsatzea.

12. artikulua.- Aparteko ordainsariak.

Hitzarmen honen eraginpeko langileek hiru ordainsari jasoko dituzte, eta honako era honetan ordainduko dira:

- San Honoratoren eguneko ordainsaria, maiatzaren 16an.
- Udako ordainsaria, uztailaren 16an.
- Eguberriko ordainsaria, abenduaren 18a baino lehen.

“San Honoratoren” eguneko ordainsaria aurreko urteko maiatzaren 16tik dagokion urteko maiatzaren 16ra bitartean sortuko da, ordaintzetan indarrean dagoen soldatarekin.

Udako aparteko ordainsariak seihilekoen arabera sorraraziko dira.

Aparteko ordainsarien zenbatekoak hitzarmen honen eranskin gisa jasotzen diren soldata tauletan maila bakoitzerako zehazten direnak dira. Zenbateko horri “antzinatasun-osagarriaren” hogeita hamar eguni dagokien kopuru bera gehituko zaio.

Hitzarmen honen indarraldian, enpresek haborokinen ehuneko ehun ordainduko diete eskubidea duten langile guztiei, baita denboraren zati bat lan-istripuaren, lanbideak eragindako gaixotasunaren edo amatasunaren ondorioz AE egoeran egon diren langileei ere. Salbuespena izango da langileak, unean uneko legediaren arabera, aparteko haborokina eta dagokion prestazioa jadanik kobratu duen kasua. Gaixotasun arruntak eragindako gainerako AE egoeratan, hitzarmenaren arabera dagokien ehuneko 75 ordainduko zaie bajaran dauden bitartean.

13. artikulua.- Aparteko orduak.

Egungo langabezia-egoera larriaren aurrean enpleguaren sor-kuntza bultzatzeko, enpresek konpromisoa hartu dute, alde batetik, beste enpresa batean lanegun osoz lanean diharduen langilerik plan-tillan ez onartzeko eta hari lanik ez emateko, eta bestetik, aparteko orduak ezinbestekoak diren kasuetara murrizteko, honako irizpide hauen arabera:

- a) Aparteko ordu arruntak: kendu egingo dira, 17. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- b) Ezbeharrak eta aparteko eta premiak bestelako kalteak konpontzeko beharrak eragindako aparteko orduak: egin egingo dira.

- c) Ezohiko kasuetan egin beharreko aparteko orduak: mantentze-lanetan egin beharrekoak, betiere Legeak aurreikusitako aldi baterako kontratazioen eta kontratazio partzialaren modalitateak erabiltzea ezinezkoa bada.

Enpresaren zuzendaritzak Enpresa Batzordeari, langileen ordezkariari eta delegatu sindikalei aldi behin emango die informazioa egindako aparteko lanorduen kopuruari buruz, betiere kausak zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, banaketaren berri ere emanaz. Era berean, informazioaren eta arestian adierazitako irizpideen arabera, aparteko orduen izaera eta jatorria finkatuko dute enpresak eta langileen ordezkariak.

Aparteko orduak eranskinetako soldata-tauletan ezarritako zenbatekoaren arabera ordainduko dira eta dagokien antzinatasunaren arabera igo beharko dira.

Egindako aparteko orduak atsedenaldira konpentsatu ahal izango dira, eta atsedenaldirako denbora hori ehuneko 75 gehiago izango da.

Horretarako, aparteko orduak egin aurretik, konpentsazioa esku-dirutan edo atsedenaldirako ordutan nahi duen adieraziko dio langileak enpresari.

- Gastos de transporte.
- Plus de distancia.

Para suplir los gastos originados por los conceptos reseñados se establece el plus o complemento extrasalarial que se fija en las tablas anexas. Dicho plus será satisfecho únicamente por día efectivo de trabajo en jornada normal, por cuanto que su naturaleza será siempre compensatoria de los gastos en que incurre el trabajador por el ejercicio de su actividad.

Artículo 12.- Pagas extraordinarias.

Los trabajadores afectados por este convenio percibirán tres gratificaciones extraordinarias, que se abonarán de la siguiente forma:

- La paga extraordinaria de San Honorato, el día 16 de mayo.
- La paga extraordinaria de verano, el día 16 de julio.
- La paga extraordinaria de Navidad, antes del 18 de diciembre.

La paga de "San Honorato" se devengará de 16 de mayo del año precedente a 16 de mayo del correspondiente año, con el salario vigente en el momento de su abono.

Las pagas extraordinarias de verano y navidad se devengarán de forma semestral.

Las cuantías de las pagas extraordinarias son las que se especifican para cada uno de los niveles en las tablas salariales que figuran como anexos a este convenio. A dicha cuantía se le incrementará la cantidad equivalente a treinta días naturales de “complemento de antigüedad”.

Durante la vigencia del presente convenio, las empresas abonarán el cien por cien de las gratificaciones a todo trabajador que tenga derecho a las mismas, aunque hubiese permanecido parte del tiempo en situación de IT derivada de accidente de trabajo, enfermedad profesional o maternidad. Se excluyen aquellos supuestos en los que el/la trabajador/a, de conformidad con la legalidad vigente en cada momento, haya percibido ya dicha gratificación extraordinaria con el abono de la prestación correspondiente. En los demás casos de I.T. derivados de enfermedad común, se abonarán al 75 por ciento de lo que corresponda según convenio durante el tiempo de la baja.

Artículo 13.- Horas extraordinarias.

Ante la grave situación de paro existente, con el objetivo de favorecer la creación de empleo, las empresas se comprometen, por una parte a no admitir en plantilla ni proporcionar trabajo a trabajadores/as que se encuentren en activo y a jornada completa en otra empresa; y por otro lado, se reducirán al mínimo indispensable las horas extraordinarias, y con arreglo a los siguientes criterios:

- a) Horas extraordinarias habituales: Supresión, no obstante lo establecido en el artículo 17.

- b) Horas extraordinarias que vengán exigidas por la necesidad de reparar siniestros y otros daños extraordinarios y urgentes: realización.

- c) Horas extraordinarias en casos excepcionales: mantenimiento, siempre que no quepa la utilización de las distintas modalidades de contratación temporal o parcial previstos por la Ley.

La Dirección de la empresa informará periódicamente al Comité de Empresa, Delegados de Personal y Delegados Sindicales, sobre el número de horas extraordinarias realizadas, especificando las causas, y en su caso, la distribución. Asimismo, en función de esta información y los criterios arriba indicados, la empresa y los representantes de los trabajadores determinarán el carácter y la naturaleza de las horas extraordinarias.

Las horas extraordinarias se abonarán de acuerdo con el importe establecido en las tablas salariales anexas, que deberán incrementarse con la antigüedad correspondiente.

Las horas extraordinarias prestadas, podrán compensarse por tiempo libre, incrementando el mismo en el porcentaje del 75 por ciento.

A estos efectos, el trabajador/a antes de su realización manifestará a la empresa su deseo de disfrutarlas o de que se le compensen en metálico.

Atsedernaldia, aparteko ordu guztiena metatzeko aukerarekin, nahi duenean hartuko du langileak. Horretarako, aste bateko aurretiaz ohartaraziko du enpresa. Egoera horretan ezin izango da pertsonalaren ehuneko 10 baino gehiago egon egun berean.

14. artikulua.- Garbitzaileak.

Garbitzaileen soldata orduko 8,90 eurokoa izango da, kontzeptu guztiak barne, 2013ko uztailetik abendura bitartean. 2014. urtean, berriz, urte horretarako itundutako soldata-ehunekoarekin gehituko da. Horrez gain, aparteko ordainsariei, antzinasunari eta oporrei dagozkien eskubideak izango dituzte lan egindako orduen proportzioan.

15. artikulua.- Gauzazko ordainsariak.

Hitzarmen honen eraginpeko langileek ogi-kiloa jasoko dute egunero (jaiegunak, gaixotasun edo istripu baten ondoriozko bajaran emandako egunak eta oporretako egunak barne hartuta). Ogia enpresak egiten dituen merkataritza-piezetako edozein izango da, inoiz ez da langileentzat bereziki egindako pieza bat izango.

Langilea bajaran edo oporretan dagoenean, ogi-kilo hori fabrikari edo edozein bulegotan hartu ahal izango du.

Gizarte Segurantzarako kotizazioaren ondorioetarako, emandako ogiaren balioa hileko 7 eurokoa izango da. Kalkulu horretan, erabilitako irinaren prezioa besterik ez da zenbatuko.

16. artikulua.- Gidarien partaidetza berezia.

Garraio-funtzioaz gain, salmenta-funtzioa betetzen duten gidariak ehuneko 1eko partaidetza jasoko dute.

17. artikulua.- Lanaldia.

Hitzarmen honetan hitzartutako lanaldia benetako laneko 1.755 ordukoa izango da hitzarmenaren indarraldiko urte bakoitzeko.

Lanaldi etengabearen diharduten langileek eta eskubidea aitortua dutenek ogitartekoa jateko duten 15 minutuko atsedernaldia lan efektibotzat hartuko da lanaldi horren barruan. Enpresaren eta langileen ordezkariek ados jarrita ogitartekoa jateko etenaldirik ez egitea erabakitzen den enpresetan, eguneko lanaldia 15 minutu lehenago amaituko da.

Hitzarmenaren indarraldian, urtean egun libre baterako eskubidea izango dute langileak. Egundak hori enpresak eta langileak ados jarrita finkatzen duten egunetan emango da.

Enpresaren barne-malgutasuna bultzatzeko neurriak direla eta, lanaldia era irregular batean banatzeko aukerari dagokionez hitzartutakoa da enpresak urteko 100 ordu izango dituela, urteko lanaldiaren ehuneko 5,7 alegia, eta nahi bezala banatu ahalko dituela.

Dena den, banaketa irregular horrek lege honetan aurreikusitako eguneko eta asteko gutxieneko atsedernaldiak errespetatu beharko ditu, eta langileak bost egun lehenago jakin beharko du, gutxienez, banaketa horren ondoriozko lana egin beharreko eguna eta ordua.

Urtarrilaren 1aren, Ostiral Santuaren, maiatzaren 1aren eta abenduaren 25aren bezperan larunbatetan bezala lan egingo da, eta irizpide berari eutsiko zaio lau jaiegun horietako bat astelehena denean. Horrela, beraz, igandean larunbatean bezala lan egingo da, eta aurreko larunbatean, berriz, egun arrunt batean bezala. Kasu horretan, asteko atsedernaldia hartu beharko da konpentsazio gisa.

18. artikulua.- Igande eta jaiegunetako lanak.

Egun horietan benetako lana egiten duten langileak, jaiegunetan eta asteko atsedenean egunetan lan egiteko berariaz kontratatutakoek salbu, eskubidea izango dute jaiegunetako lan-osagarria jasotzeko, alegia, oinarritzeko soldata halako bi eta dagokion jarduera-osagarria.

19. artikulua.- Oporrak.

Hitzarmen honen eraginpeko langileak egutegiko 31 eguneko opor ordainduak izango dituzte urtean. Opor horiek langile bakoitzak jasotako soldata-kontzeptu guztiak kontuan hartuta ordainduko dira.

Se disfrutará el tiempo de descanso, -pudiendo acumularse el de las distintas horas extraordinarias-, en el momento que el trabajador lo estime oportuno, avisando a la empresa con una antelación de una semana y no pudiendo coincidir en esta situación más del 10 por ciento de la plantilla en la misma fecha.

Artículo 14.- Personal de limpieza.

El salario del personal de limpieza se abonará a razón de 8,90 euros/hora por todos los conceptos durante el período de julio a diciembre de 2013, incrementándose en 2014 en el porcentaje salarial que se pacte para dicho año. Con independencia percibirán sus derechos correspondientes a pagas extraordinarias, antigüedad y vacaciones en proporción a las horas trabajadas.

Artículo 15.- Retribución en especie.

Los trabajadores afectados por el presente convenio, percibirán un kilo de pan diario incluidos los días festivos, de baja por enfermedad o accidente y en vacaciones, que deberán ser de cualquiera de las piezas comerciales que la empresa fabrique nunca elaborado especialmente para los trabajadores.

En la situación de baja o de vacaciones, dicho kilo de pan podrá ser adquirido por el personal bien en fábrica o en cualquiera de los despachos.

A efectos de cotización a la Seguridad Social, se cifra en 7 euros mensuales el valor del pan suministrado; computándose en este cálculo exclusivamente el precio de la harina empleada.

Artículo 16.- Participación especial de chóferes.

Los chóferes que desempeñen funciones de venta, además de la función de transporte, percibirán una participación del 1 por ciento sobre las ventas que realicen.

Artículo 17.- Jornada laboral.

La jornada laboral pactada en el presente convenio, será de 1.755 horas de trabajo efectivo para cada uno de los años de vigencia del mismo.

Se considera dentro de esta jornada como trabajo efectivo, un descanso de 15 minutos para tomar el bocadillo el personal de jornada continuada y el que tuviera reconocido este derecho. En aquellas empresas en que de común acuerdo, entre la empresa y los representantes de los trabajadores, se decida no parar a tomar el bocadillo, la terminación de la jornada diaria será de 15 minutos antes.

Durante la vigencia del convenio, los trabajadores/as tendrán derecho a un día libre al año, que se concederá en la fecha que se fije de común acuerdo entre empresa y trabajador.

Respecto de las medidas para contribuir a la flexibilidad interna de la empresa, en relación a la posible distribución irregular de la jornada, se pacta que la empresa dispondrá de 100 horas anuales, que representan el 5,7 por ciento de la jornada anual, las cuales podrá distribuir libremente.

Dicha distribución irregular deberá respetar en todo caso los períodos mínimos de descanso diario y semanal previstos en la Ley, y el trabajador deberá conocer con un preaviso mínimo de cinco días el día y la hora de la prestación de trabajo resultante de aquella.

La jornada anterior a los días 1 de enero, Viernes Santo, 1º de mayo y 25 de diciembre se trabajará como sábados, y el mismo criterio se seguirá cuando alguna de estas festividades se celebre en lunes, trabajando por lo tanto el domingo con jornada de sábado y el sábado precedente como normal, debiéndose disfrutarse del descanso semanal compensatorio.

Artículo 18.- Trabajo en domingos y festivos.

Los trabajadores/as, salvo los contratados específicamente para trabajar en días festivos y descansos semanales, que desempeñen de manera efectiva trabajos en dichos días tendrán derecho al complemento de trabajos festivos, en cuantía equivalente al doble de su salario base y complemento de actividad que corresponda.

Artículo 19.- Vacaciones.

El personal afectado por este convenio disfrutará de unas vacaciones anuales retribuidas de 31 días naturales, que se abonarán con arreglo a todos los conceptos salariales percibidos por cada trabajador.

Oporrak ezin izango dira larunbatean, igandean, jaiegunean edo jaiegunen bezperan hasi.

Urte bakoitzaren hasieran (urtarrilean eta otsailean), enpresa bakoitzak bere opor-egutegia egingo du. Egutegi horretan, langile bakoitzak oporrak hartzeko aukeraturako datak (uztailetik irailera bitartean, biak barne) ezarriko dira. Oporrak bi alditan zatitu ahal izango dira gehienez (16 eta 15 egunekoak hurrenez hurren).

Oporraldian jasoko den lansaria eranskinetako soldata-taulan azaltzen da, eta egutegiko 31 eguni dagokio.

Aurreko paragrafoan aipatzen den enpresako opor-egutegian ezarritako oporraldia bat etortzen bada langileren baten haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitze naturalak eragindako aldi baterako ezintasunarekin edota Langileen Estatutuko 48.4 eta 48 bis artikuluan aurreikusten den kontratu-etetea aldi berean gertatzen badira, aldi baterako ezintasunaren edo aipaturako araua aplikatzean dagokion baimena baliatuko den denboralditik kanpo baliatu ahal izango dira oporrak, etete horren iraupena bukatu ondoren, dagokien urte naturala amaitu bada ere.

Baldin eta aldi berean gertatzen badira oporraldia eta aurreko paragrafoan aipaturako gertakizunak ez diren beste gertakizun baten-gatik aldi baterako ezintasuna, eta, hori dela eta, langileak ezin badu oporraldi osoa edo horren zati bat dagokion urte naturalaren barruan baliatu, ezintasun-aldia amaitu ondoren baliatu ahalgo ditu oporrak, betiere ez badira hemezortzi hilabete baino gehiago pasatu oporrak hartzeko eskubidea sortu den urtearen amaieratik aurrera.

Oporren ordainsariak oporrak hartu aurretik ordainduko dira.

20. artikulua.- Urteko ordainsari gordina.

Urteko ordainsari gordinak hitzarmen honetan adosturiko pertzepzio guztiak hartuko ditu barruan, maila eta kategoria profesionalaren arabera. Pertzepzio bakoitza noiz sortzen den, honako formula honek emango du urteko ordainsari gordina:

$$UO = OS \cdot *334 + SP \cdot *334 + SKP \cdot KOP + LP + HO + EO + GO + O$$

Non:

1. UO = urteko ordainsaria
2. OS = oinarritzko soldata
3. SP = soldata-plusa
4. SKP = soldataz kanpoko plusa
5. HO = San Honoratoren ordainsaria
6. EO = ekaineko ordainsaria
7. GO = Gabonetako ordainsaria
8. LP = lantzeko pizgarria
9. O = oporrak
10. KOP = benetan lan egindako egun edo hil kopurua

21. artikulua.- Baimenak eta lizentziak.

Hitzarmen honen eraginpeko langileek soldatoko eta soldataz kanpoko kontzeptu guztiekin ordaindutako honako lizentzia edo baimen hauek jasotzeko eskubidea izango dute, Langileen Estatutuan ezarritakoa bazter utzi gabe, honako arrazoi hauek direla-eta:

a) Ezkontzen diren langile guztiek 20 egun hartzeko eskubidea izango dute. Lizentzia hori ezin izango du beste ezein lizentziak irentsi, ezta oporrek ere.

b) Seme edo alaba bat jaiotzean eta ezkontideak gaixotasun larria edo ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasuna duenean, langileak egutegiko hiru egun izango ditu eta epe hori beste bi egun luzatu ahal izango da, horretarako bidaiaren bat egin behar izanez gero. Seme edo alaba bat jaiotzean kirurgia-ebakuntza behar izanez gero, epea beste bi egun luzatuko da.

Heriotzaren kasuan, berriz, langileak bost egun izango ditu, eta beste hiru egun luzatu ahal izango dira bidaiaren bat egin behar denean. Aurrekoen, ondorengoan eta anai-arreben (odolkideen zein politikoen) gaixotasun larriaren edo heriotzaren kasuan, egutegiko hiru eguneko baimen ordaindua jasotzeko eskubidea izango dute langile guztiek. Epe hori beste bi egun luzatu ahal izango da bidaiaren bat egin behar izanez gero.

Las vacaciones no podrán comenzar en sábados, domingos, días festivos o vísperas de festivos.

Al principio de cada año, durante los meses de enero y febrero se elaborará en cada empresa un calendario de vacaciones, en el que constarán las fechas de disfrute de éstas por cada trabajador que serán entre los meses de julio a septiembre inclusive, pudiendo dividirse el disfrute de las mismas como máximo en dos períodos de 16 y 15 días respectivamente.

La retribución a percibir durante el período de vacaciones será la que se fija en la tabla salarial anexa, que corresponda a 31 días naturales.

Cuando el período de vacaciones fijado en el calendario de vacaciones de la empresa al que se refiere el párrafo anterior coincida en el tiempo con una incapacidad temporal derivada del embarazo, el parto o la lactancia natural o con el período de suspensión del contrato de trabajo previsto en el artículo 48.4 y 48.bis del ET, se tendrá derecho a disfrutar las vacaciones en fecha distinta a la de la incapacidad temporal o a la del disfrute del permiso que por aplicación de dicho precepto le correspondiera, al finalizar el período de suspensión, aunque haya terminado el año natural a que correspondan.

En el supuesto de que el período de vacaciones coincida con una incapacidad temporal por contingencias distintas a las señaladas en el párrafo anterior que imposibilite al trabajador/a disfrutarlas, total o parcialmente, durante el año natural a que corresponden, el trabajador podrá hacerlo una vez finalice su incapacidad y siempre que no hayan transcurrido más de dieciocho meses a partir del final del año en que se hayan originado.

El abono de las retribuciones correspondientes a las vacaciones se efectuará con anterioridad a su disfrute.

Artículo 20.- Remuneración bruta anual.

La remuneración bruta anual comprenderá todas las percepciones pactadas en el presente convenio, por nivel y categoría profesional. Según el devengo de cada percepción, la remuneración bruta anual vendrá dada por la siguiente fórmula:

$$RA = SB \cdot *334 + PS \cdot *334 + PE \cdot N^{\circ} + IE + PH + PJ + PN + V$$

Siendo:

1. RA = Remuneración anual
2. SB = Salario base
3. PS = Plus salarial
4. PE = Plus extrasalarial
5. PH = Paga de San Honorato
6. PJ = Paga de junio
7. PN = Paga de Navidad
8. IE = Incentivo de elaboración
9. V = Vacaciones
10. N° = Número de días o meses de trabajo efectivo

Artículo 21.- Permisos y licencias.

El personal afectado por el presente convenio tendrá derecho a las siguientes licencias o permisos retribuidos con todos los conceptos salariales y extrasalariales, sin perjuicio de lo establecido en el Estatuto de los Trabajadores, por las siguientes causas:

a) Todo el personal que contraiga matrimonio tendrá derecho a 20 días. Esta licencia no podrá ser absorbida por ninguna otra licencia ni por vacaciones.

b) En caso de nacimiento de hijo/a, enfermedad grave o que requiera hospitalización al cónyuge, tendrá tres días naturales, que serán ampliables a dos más, cuando deba realizarse un desplazamiento al efecto. En caso de nacimiento de un hijo/a, si es necesario intervención quirúrgica, el plazo se ampliará dos días más. En caso de fallecimiento cinco días ampliables a tres más en caso de desplazamiento.

En caso de enfermedad grave y fallecimiento de ascendientes, descendientes y hermanos, tanto consanguíneos como políticos, los trabajadores/as tendrán derecho a un permiso retribuido de tres días naturales, que serán ampliables a dos más cuando deba realizarse un desplazamiento al efecto.

c) Gurasoen, seme-alaben eta anai-arreben (odolkideen zein politikoen) ezkontzaren kasuan, egun bat izango dute langileek.

d) Ohiko bizilekua aldatzen denean, egun bateko baimen ordaindua jasotzeko eskubidea izango du langileak.

e) Mediku orokorrarengana edo espezialistarengana joateko behar den denbora, betiere justifikatzen bada.

f) Hamabi urtetik beherako seme-alabei Osasun Zerbitzu Publiko medikuarengana laguntzeko beharrezkoa den denbora, betiere justifikatzen bada eta bi ezkontideek lan egiten badute eta lan-ordutegi bera badute.

Gainera, alde zaureratik eskatuta, ordaindu gabeko lau eguneko baimena izango du urtean langileak, betiere produkzio-adar bakoitzean (okintzako lantegian, banaketan eta abar) egoera horretan bi pertsona baino gehiago ez badaude.

22. artikulua.- Probaldia.

Hitzarmen honen eraginpeko langileekin probaldi bat adostu ahal izango da, idatziz. Gehienez, honako iraupen hau izango du:

-6 hilabete teknikari eta tituludunentzat.

-3 hilabete arduradun, titulurik gabeko teknikari, lehen mailako administrari eta merkataritza-arduradunentzat.

- Hilabete bat gainerako langileentzat.

23. artikulua.- Hitzarmeneko Batzorde Paritarioa.

Batzorde Paritarioa era honetan osatuko da:

* Batzordeburua: bi alderdiek izendatuko dute, ados jarrita. Moderatzaile gisa arituko da; hitza edukiko du, baina botorik ez.

* Idazkaria: alderdiek izendatuko dute. Hitza izango du, baina botorik ez.

* Bokalak: langileen lau ordezkari. Hitzarmen hau sinatu duten sindikatuak izendatuko dituzte, dagokien ordezkariaren arabera. Horri dagokionez, sindikatu-erakundeek Batzorde Paritarioan duten ordezkari hitzarmen honetako Negoziazio Batzordea eratzten duen bera izango da, eta dituen aldaketak ez dira kontuan hartuko.

* Enpresen lau ordezkari.

* Helbidea: Batzorde horren helbidea Arabako Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzan ezartzen da, Landaberde kaleko 35ean, Vitoria-Gasteizen.

* Aholkulariak: Batzorde Paritarioaren bileretara lau aholkulari joan ahal izango dira; horietatik bi langileek izendatuko dituzte, eta beste bi enpresek. Hitza izango dute, baina botorik ez.

Batzorde Paritarioaren erabakiak baliagarriak izateko, langileen eta enpresen kide ordezkari guztien gehiengo soilaren adostasuna behar dute —bakoitza bere aldetik—. Batzordeak etorkizunean hartu behar dituen erabaki mota guztietarako balio izango du baldintza horrek.

Batzorde Paritarioa sei hilean behin bilduko da, eta ezhoko bilkura egingo da alderdietako batek eskatzen badu.

24. artikulua.- Batzorde Paritarioaren eginkizunak.

Aurreko artikuluan aipaturiko Batzorde Paritarioak honako eginkizun hauek izango ditu:

a. Hitzarmen hau betetzen ote den zaintzea eta haren jarraipena egitea.

b. Hitzarmenean ezarritako guztia aplikatu eta interpretatzearen ondorioz sortzen diren auzien berri izatea eta horiek konpontzea.

c. Alderdietako batek eskatzen badu, bitartekari-lanak egitea edota, hala badagokio, adiskidetzen ahalegintzea, eta alderdiak ados jartzen ez badira, eta alderdi horiek eskatuta, hitzarmen hau interpretatzerakoan sor daitezkeen gorabehera eta gatazka kolektibo guztietan arbitraje-lanak egitea.

d. Hitzarmen hau aplikatu edo interpretatzerakoan sor daitezkeen gatazka kolektiboak kontsulta eta/edo bitartekotza moduan hartzea, nahitaez eta bide administratibo eta jurisdikzionalera jo aurretik.

e. Langileen Estatuaren 41.4 artikuluan ezarritako kontsultaldia amaitu, eta enpresan akordioak lortu ez bada lan-baldintzen funtsezko

c) Por matrimonio de padres-madres, hijos/as y hermanos/as consanguíneos o políticos, un día.

d) En caso de traslado de domicilio habitual, el trabajador/a afectado tendrá derecho a un día de permiso retribuido.

e) Por el tiempo indispensable para acudir al médico general o especialista, siempre y cuando se justifique.

f) Por el tiempo necesario para el acompañamiento de hijos menores de doce años al médico del Servicio Público de Salud, siempre que se justifique, trabajen ambos cónyuges y sea coincidente el horario de trabajo de ambos.

Además, previa solicitud, el personal podrá disponer de hasta cuatro días de permiso no retribuido durante el año, siempre que no coincida en esta situación más de dos personas en cada rama de producción (obrador, reparto, etc.)

Artículo 22.- Período de prueba.

Podrá concertarse por escrito un período de prueba para los trabajadores afectados por este convenio, cuya duración máxima será la siguiente:

-6 meses para técnico y titulados.

-3 meses para encargado; técnico no titulado, administrativo de primera y responsable comercial.

-Para el resto del personal, un mes.

Artículo 23.- Comisión Paritaria del convenio.

La Comisión Paritaria del presente convenio estará constituida de la siguiente forma:

* Presidente: La persona que las partes designen de común acuerdo. Tendrá funciones de moderador, con voz pero sin voto.

* Secretario: El que las partes designen, con voz pero sin voto.

* Vocales: Cuatro representantes de los trabajadores/as, que serán designados por las Centrales Sindicales firmantes de este convenio de acuerdo a su representatividad. A este respecto, la representatividad de las organizaciones sindicales en la Comisión Paritaria será la misma con la que se constituye la Comisión Negociadora del presente convenio sin que sus alteraciones posteriores sean tenidas en cuenta.

* Cuatro representantes de las empresas.

* Domicilio: El domicilio de esta comisión se fija en la sede del CRL de Álava, calle Landaverde, número 35, de Vitoria-Gasteiz.

* Asesores: Podrán asistir a las reuniones de la Comisión Paritaria cuatro asesores/as, dos designados por los trabajadores y dos por las empresas. Tendrán voz pero no voto.

Los acuerdos de esta Comisión Paritaria requerirán para su validez la conformidad por separado de la mayoría simple del total de los vocales representantes de los trabajadores/as y de las empresas, sirviendo para toda clase de acuerdos que deba adoptar la comisión en el futuro.

La Comisión Paritaria se reunirá cada seis meses y con carácter extraordinario siempre que lo solicite cualquiera de las partes.

Artículo 24.- Funciones de la Comisión Paritaria.

La Comisión Paritaria a que se refiere el artículo anterior, tendrá las siguientes funciones:

a. Vigilancia y seguimiento del cumplimiento de este convenio.

b. El conocimiento y resolución de las cuestiones derivadas de la aplicación e interpretación de la totalidad de los preceptos del presente convenio.

c. A instancia de alguna de las partes, mediar y/o intentar conciliar, en su caso, y previo acuerdo de éstas y a solicitud de las mismas, arbitrar en cuantas ocasiones y conflictos, todos ellos de carácter colectivo, puedan suscitarse en la aplicación del presente convenio.

d. Entender, de forma previa y obligatoria a la vía administrativa y jurisdiccional sobre el planteamiento de conflictos colectivos que surjan por la aplicación e interpretación del presente convenio.

e. En el caso de, que tras el correspondiente periodo de consultas establecido en el artículo 41.4 del ET, no se alcanzase acuerdo en la

aldaketaren negoziaketan, jarduketak batzorde paritarioari bidali beharko zaizkio, hurrengo bost eguneko epean, desadostasunak ebatz ditzan. Jarduketa horiek desadostasun-aktarekin batera bidali beharko dira.

Batzorde horrek ez badu akordiorik lortzen 20 eguneko epean, hurrengo 3 egunetan bere eremuko PRECOra bidali beharko ditu jarduketak, aktarekin batera eta, hala badagokio, PRECOn aurreikusitako arbitraje-prozedurari men egiteko akordioarekin batera, horrek arbitraje loteslea eman dezan. Horrelakoetan, arbitraje-laudoak kontsultaldian lortutako akordioen eraginkortasun berbera izango du, eta Langileen Estatutuaren 91. artikuluan jasota datorren prozeduraren arabera eta bertan zehaztutako zergatiengatik soilik errekurritu ahal izango da. Batzorde Paritarioan ez bada akordiorik lortzen gatazkari arbitraje lotesle baten bitartez konponbidea emateko, aldeetako edozeinek Hitzarmen Kolektiboan Aholku Batzorde Nazionalaren esku utz dezake arazoaren soluzioa, Langileen Estatutuaren 82. artikuluari jarraikiz.

f. Hitzarmen honen eraginkortasun praktikoa handiagoaren mesederako diren funtzio guztiak, edo haren testuan eta haren zati diren eranskinetan hitzartutakoaren ondoriozkoak.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiak behartuta daude hitzarmenaren interpretazioarekin eta aplikazioarekin lotuta sor daitezkeen zalantza, desadostasun eta gatazka kolektibo orokor guztiak Batzorde Paritarioari jakinaraztera, betiere, aurreko idatzi-zatian ezarritakoaren arabera, bere eskumenekoak badira, haren esku-hartzeak planteatutako arazoa konpon dezan; edo hori ezinezkoa bada, horri buruzko ebazpena edo txostena egin dezan.

Batzorde Paritarioari aurkezten zaizkion gaiak idatziz aurkeztu behar dira, eta gutxienez honako hauek jaso behar dira:

- a. Arazoaren azalpen labur eta zehatza.
 - b. Proposamena egiten duenak bere iritziz proposamen horiek egiteko dituen arrazoiak eta oinarriak.
 - c. Batzordeari egiten zaion proposamen edo eskaera zehatza.
- Kontsulta-idazkiarekin batera, arazoa hobeto ulertzeko eta konpontzeko behar diren dokumentuak aurkeztuko dira.

